| **2016KO AZAROAREN 18AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** | **ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 18 DE NOVIEMBRE DE 2016** |
|---|---|

Alvaro GONZALEZ PEREZ Jn.

| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |
|---|---|

AMIEVA CLEMENTE, Paula and.
ANDOLLO GONZALEZ and.
ARREGI MARTINEZ, Joseba jn.
CORIA YANGUAS, Elena and.
COS YAÑEZ, Susana de and.
EIGUREN ALBERDI, Keltse and.
IBABE BOTELLA, Miguel jn.
ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn.
LANDA ARTECHE, José Luis jn.
SAINZ ROBLES, Santiago jn.
URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn.

| JARDUNEKO IDAZKARIA | SECRETARIA ACCIDENTAL |
|---|---|

ALONSO BASALDUA, Ainhoa and.

| GONBIDATUTAKOAK | INVITADOS |
|---|---|

RICA BILBAO, José jn.

Getxo, bi mila eta hamaseiko azaroaren 18ko 08:27an, Getxo Kirolakeko Bilkura Gelan egindako ez ohiko bilkuran, Zuzendaritza Batzordea bildu zen eta goian zerrendatu diren pertsonak bertaratu ziren.

En Getxo, a las 08:27 horas del día 18 de noviembre de dos mil dieciseis se reúne en sesión extraordinaria, en la Sala de Juntas de Getxo Kirolak, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

LAN-MERKATUAN SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONEK OSTALARITZA-PRESTAKUNTZAN ETA UMEENTZAKO GUNEAN LAN EGITEKO, GETXO KIROLAK-FADURA LOKALETAN KONTRATUA LUZATZEKO ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO DE PRÓRROGA DEL CONTRATO DE PROYECTO DE INSERCION Y DESARROLLO LOCAL PARA EL EMPLEO DE PERSONAS CON DIFICULTADES DE ACCESO AL MERCADO DE TRABAJO EN HOSTELERIA-FORMACION Y ZONA DE NIÑOS/AS EN LOS LOCALES DE GETXO KIROLAK-FADURA

Lehendakariak azaldu du zergatik egingo duten presazko bilera hau; hain zuzen ere, *"Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonek Ostalaritza-Prestakuntzan eta Umeentzako Gunean Lan Egiteko, Getxo Kirolak-Fadurako lokaletan" izeneko kontratua* ***duela sei urte sinatu zuten, eta bihar, 2016/11/19an, amaituko da.*** Beraz, amaitu baino lehen erabaki behar da luzatu behar den ala ez, eta, puntu hori aurreko zuzendaritza-batzordean jorratu behar bazen ere, egunak direla-eta ezohiko bilera hau deitu da.

Toma la palabra el presidente y explica a qué es debida la urgencia de la presente reunión, dado que el contrato denominado "*Proyecto de Inserción y Desarrollo Local para el Empleo de Personas con dificultades de acceso al Mercado de Trabajo en Hostelería-Formación y Zona de niños/as en los Locales de Getxo Kirolak-Fadura*", se firmó hace seís años y finaliza mañana día 19/11/2016, por lo que hay que estimar o desestimar su prórroga antes de su finalización, y aunque este punto debíera haber ido en un consejo rector ordinario, al final por fechas se ha convocado la presente sesión extraordinaria.

Era berean, deialdiarekin batera bidali da dokumentazio osoa, arrazoia ikusteko bere garaian onartutako aktak barne. Jakinarazi da ez dela ostalaritzako kontratua, ostalaritzaren bidez lanean sartzeko prozesua baizik.

Asimismo, juntamente con la convocatoria se ha enviado documentación completa acompañando también las actas aprobadas en su día para ver la motivación; informando que no es un contrato de hostelería, es un proceso de inserción laboral a través de la hostelería.

Proiektua Getxolanen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartez garatu zen, enplegua sustatzeko fasean, eta Getxolaneko Jose Rica Bilbao gonbidatu dute sor daitekeen edozein zalantza edo galdera erantzuteko.

El proyecto se desarrolló a través de Getxolan y Diputación Foral de Bizkaia, en una fase de promoción de empleo y se ha invitado a don José Rica Bilbao de Getxolan para responder cualquier duda o pregunta que pueda surgir.

Horrez gain, Lehendakariak adierazi du fiskalizazioak ohar batzuk egin dituela eta atzo bertan iritsi zirela; horrela, dokumentuaren kopia bana banatu zaie bertaratutakoei.

Asimismo, informa el presidente que desde fiscalización se han puesto una serie de consideraciones que han llegado ayer mismo, por lo que se reparte una copia de dicho documento a cada uno de los presentes.

8:30ean, bileran sartu dira Paula Amieva andrea eta Susana Andollo andrea, GUK taldeko ordezkariak, eta horiei ere fiskalizazioaren kopia eman zaie.

A las 08:30 se incorporan a la reunión doña Paula Amieva y doña Susana Andollo, representantes de GUK, facilitándoles también la copia de fiscalización.

Gogoeta horietako batzuk eztabaidatzeko modukoak dira, baina ez garrantzi handikoak.

Que alguna de estas consideraciones son discutibles y no son consideraciones de alcance.

Amieva andreak galdetu du azalpenen bat eman den, eta Lehendakariak aurrean azaldutakoa laburtu dio. Gainera, edozein zalantza edo galdera egin dezakeela jakinarazi dio.

La Sra. Amieva pregunta si se ha dado algún tipo de explicación, resumiéndole el presidente brevemente lo expuesto anteriormente e invitando a formular cualquier duda o pregunta.

Amieva andreak adierazi du zalantza bakarra dutela; hau da, tituluaren barnean sartuta zeuden bi zerbitzuetako bat eman gabe geratu dela, eskaririk ez izateagatik.

La Sra. Amieva manifiesta que la única duda que tienen es que al final uno de los dos servicios que estaba incluido dentro del titulo se deja de dar por falta de demanda.

Lehendakariak erantzun dio ezetz hain justu; alegia, haurtzaindegi zerbitzuan jaiak eta urtebetetzeetako ospakizunak sartuta zeuden, eta horiek ostalaritzan ematen dira. Haurtzaindegi-zerbitzua desagertu da eskaririk ez zegoelako. Enpresak berak behin baino gehiagotan proposatu zigun bertan behera uztea, 2014an utzi baino lehen ere bai, eta, jarraitzeko animatu bagenuen ere, egia da Getxok beste antolakuntza-sistema bat duela kirola egiten duen jendearentzat; hots, haurrak familiarekin uztea. Hasiera batean jendeak eskatuko zuela uste bagenuen ere, ez da horrela izan.

El Presidente señala que no exactamente, el servicio de guardería que tenía incluido la celebración de fiestas y cumpleaños se sigue dando en la hostelería y lo que ha desaparecido es la parte de la guardería que no tenía demanda y la propia empresa nos propuso en varias ocasiones cesar, incluso antes del momento que se produjo el cese en el 2014 y aunque le animamos a que siguiera es cierto que Getxo tiene otro sistema de organización para que la gente haga deporte, dejar a los niños con la familia y no era un servicio demandado que creímos en un inicio que sí.

Amieva andreak galdetu du ez den zerbitzuaren izenburua aldatu behar, eta Lehendakariak ezetz erantzun dio, %20ra iristen ez delako; hots, ez dela kontratuaren helburua izugarri aldatzen.

La Sra. Amieva pregunta si no cabe cambio del titulo del servicio, contestándole el presidente que no, ya que no alcanza el 20%, es decir, no alcanza a ser una modificación sustancial del objeto del contrato.

Bertaratutako batek galdetu du Aldundiak ekarpenen bat egin duen, eta Lehendakariak erantzun dio Aldundiak jadanik egin zuela obra osoaren gaineko ekarpena.

Uno de los asistentes señala si la diputación ha hecho algún tipo de aportación, respondiéndole el presidente que la diputación ya hizo la aportación de toda la obra.

Rica jaunak adierazi du moldaketaren gaineko aurrekontu gehiena (obra eta instalazioa) Aldundiak ordaindu zuela erabilera horretarako, eta obraren eta ekipamenduaren zati bat ere Udalak ordaindu zuela.

Toma la palabra el Sr. Rica y manifiesta que gran parte del presupuesto de lo que se refiere a adecuación (la obra e instalación) la sufragó la Diputación para que tuviese este destino, y una parte también de la obra y equipamiento lo pago el Ayuntamiento.

Amieva andreak esan du ostalaritza-zentroari dagokionean, txostenaren arabera, kudeaketaz Lanbide arduratzen dela Peñascal Fundazioaren lekuan.

Respecto al centro de hostelería, señala la Sra. Amieva decía en el informe qué quien se hace cargo de la gestión es Lanbide en lugar de la Fundación Peñascal.

Rica jaunak adierazi du zentroaren helburuetariko bat dela, hona etorri nahi duten Getxoko herritar eta erabiltzaile guztiei zerbitzua emateaz gain, gizarteratzea bultzatzea: alde batetik, gizarteratzeko enpresa baten bitartez, hau da, lan hori egiteko kontratatu diren pertsonek Eusko Jaurlaritzak onartutako irudia betetzen dute, eta gizarteratzeko enpresa bat da. Helburua "x" jarduera egitea da, kasu honetan ostalaritza, pertsona horiek urte batzuetan enpresan egotea bultzatzea. Horrela, enpresak, kasu honetan, ostalaritzako hitzarmenaren arabera kontratatzen ditu, eta, hor bizpihiru urtez aritu ondoren, teknikoki eta pertsonalki prestatuta egoten laguntzen die. Beraz, gizarteratzeko prozesu bat jorratzen da; horixe da gizarteratzeko enpresa.

El Sr. Rica explica que uno de los objetos de este centro, además de prestar servicio a todos los usuarios y ciudadanos de Getxo que quieran venir aquí, es la inserción; por una parte, a través de una empresa de inserción, es decir, las personas que están contratadas para hacer esa labor con una figura que está reconocida por el Gobierno Vasco, que es una empresa de inserción, que el objeto es a través de una actividad “x”, en este caso es la hostelería, apoyar para que estas personas estén durante unos años en la empresa y la empresa lo que hace es contratarles con el convenio de hostelería en este caso, y les apoya para que la salida laboral, después de estar ahí dos o tres años en función de cada uno, estén preparados técnicamente y personalmente, y entonces se hace un proceso de itinerario de inserción, eso es la empresa de inserción.

Bestetik, zentro berean prestakuntza-ikastaroak ere egiten dira. Badira kontrataturiko pertsonak eta ikasten ari diren pertsonak, horiek prestakuntza ematen ari dira. Hain zuzen ere, Peñascal Fundazioak ematen du prestakuntza, hainbat zentro ditu Bizkaian, eta homologatuta dago eta Lanbidek finantzatzen du. Horrela, ostalaritzako ibilbideen trebetasun profesionalak erakusten dira, prestakuntza egiten duten pertsonentzat modulo horiek baliagarriak izan daitezen prestatzen jarraitzeko eta LH edo dena delakoa izatera iritsi daitezen.

Y luego en este mismo centro también se prestan cursos de formación, dentro de lo que vemos hay personas contratadas y personas que están aprendiendo y ellos están dando formación, esa formación la presta la Fundación Peñascal que tiene varios centros en Bizkaia y está homologada y financiada por Lanbide y lo que se da son las capacitaciones profesionales de los itinerarios de hostelería para que esos módulos a esas personas que hacen la formación les sirvan para seguir formándose y poder llegar a tener una FP o lo que fuera.

Amieva andreak galdetu du Udalak ezin ahal zituen bete pleguetan jasotzen ziren konpromisoak, zergatik jarri zen, eta Rica jaunak erantzun dio Getxolanek prestakuntza-ekintzak egiten zituela, baina 2013az geroztik Getxolanek ez duela prestakuntza eta enplegu ekintzarik egiten, prestakuntza ekonomikoko ekintzak baizik. Beraz, Peñascal Fundazioak aurrera jarraitu behar izan du Lanbiderekin zuzenean, prestakuntza-ikastaroak, finantzaketa, ikasleen deialdia, e.a. eskatzeko. Alegia, lehen Getxolanetik babesten ziren funtzio batzuk bere gain hartu behar izan ditu. Aldaketa baten antzekoa da.

La Sra. Amieva pregunta sí el Ayuntamiento no podía cumplir los compromisos que figuraban en los pliegos, ¿por qué se puso?, contestando el Sr. Rica que Getxolan sí hacía acciones de formación pero desde el año 2013 Getxolan no hace acciones de formación y empleo sino acciones de formación económica y entonces la Fundación Peñascal se ha tenido que buscar la vida directamente con Lanbide para solicitar los cursos de formación, la financiación, la convocatoria de alumnos, etc., ósea, ha asumido parte de funciones que antes desde Getxolan se apoyaban, es como un cambio.

Adierazitakoa ikusita, proposamena bozkatu dute, eta emaitza ondorengoa izan da:

Aldeko botoak..........: 9 (EAJ/PNV - PSE/EE - PP)
Abstentzioak.............: 3 (GUK - C`s)

A la vista de lo expuesto, se somete a votación la propuesta y da el siguiente resultado:

Votos a favor……: 9 (EAJ/PNV – PSE/EE - PP)
Abstenciones…….: 3 (GUK – C`s)

Beraz, *"Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonek Ostalaritza-Prestakuntzan eta Umeentzako Gunean Lan Egiteko, Getxo Kirolak-Fadurako lokaletan"* izeneko kontratua luzatzea ONARTU egin da.

En vista de ello, se APRUEBA la prórroga del contrato del *Proyecto de Inserción y Desarrollo Local para el Empleo de Personas con dificultades de acceso al Mercado de Trabajo en Hostelería-Formación y Zona de niños/as en los Locales de Getxo Kirolak-Fadura.*

Jorratzeko beste gairik ez dagoenez, akta honen goiburuan adierazitako eguneko 08:35ean amaitu da bilera.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 08:35 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Lehendakaria / El Presidente

Jarduneko Idazkaria / La Secretaría Accidental